Agindu hori garatzeko, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduak, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, 38.2 artikuluan xedatzen du kontseiluko buruak urteko memoria egin, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko diola, onetsi dezan.

Erregelamendu horren 12.2.f) artikulua ezartzen duenez, berriz, Nafarroako Kontseiluko kide-idazkariak prestatuko du Kontseiluaren jardun memoriaren proiektua.

Deskribatutako eginkizunak bete ondoren, Nafarroako Kontseiluak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, 2023. urteko memoria onetsi zuen, ondotik azaltzen den moduan.



ALDERDI OROKORRAK

1.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN SORRERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bidez sortu zen Nafarroako Kontseilua (urte bereko 37. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 26koa). Foru lege horrek 1999ko urriaren 1ean hartu zuen indarra, eta aldaketak erantsi zizkieten 2001eko abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenak.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legeak, ekainaren 15ean indarra hartu zuenak, indarrrik gabe utzi zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea eta, Nafarroako Kontseilua eguneratzearen, araudi berria eman zion. Araudi horren bidez, haren kideen kopurua murriztu zen, eta aldatu ziren bai kideak hautatzeko era, bai Kontseiluko kideen, kide-idazkariaren nahiz buruaren agintaldien iraupena; halaber, haren irizpenek -ordenamendu juridikoa betetzen dela zaintzeaz gain- abaguneari eta komenigarritasunari buruzko balorazioak jaso ditzakete, gaiaren izaeratik edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatu duelako, eta, orobat, Administrazioak bere helburuak eraginkortasun handiagoz betetzeko bada.

Aipatutako legeez gain, Kontseilua bere erregelamenduaren bidez arautzen da: Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsia eta ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatua; azken horren bidez, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua, otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuak onetsitakoa, aldatzen da.

Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretuaren 4.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren xede izandako gaietan ez du txosten juridikoa ematen ahalko Nafarroako Foru Komunitateko edo beste Administrazio Publiko bateko organo edo erakunde batek, ezta Estatuko Kontseiluak ere.

2.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN OSAERA ETA IZAERA.

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko kontsulta organo gorenena da. Bere eginkizunak betetzean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen direla begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek abagunearen eta komenigarritasunaren gaineko balorazioak jasotzen ahal dituzte, gaiaren izaerak horretara behartzen duenean edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatzen duenean, zein Administrazioak eraginkortasun handiagoa behar duenean bere helburuak betetzeko. Era berean, Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objektibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

Nafarroako Kontseilua bost kidek osatuko dute. Nafarroako Parlamentuak gehiengo osoz hautatu eta proposatuko ditu, ospe handia, 15 urteko lanbide esperientzia, gutxienez, eta nafar izaera politikoa duten legelarien artetik, eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatuko ditu. Honako hauek proposatzen ahalko dituzte postu hutsak betetzeko izangaia: a) Parlamentu talde batek edo batzuek; b) Nafarroako abokatu elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak; c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

3.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGUNGO OSAERA.

Ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du.

2023ko abenduaren 31n honako hau zen Nafarroako Kontseiluaren osaera:

Lehendakaria:

& Alfredo Irujo Andueza jauna

Kontselukide-idazkaria:

& Hugo López López jauna

Kontseilukideak:

& & M^a Ángeles Egusquiza Balmaseda andrea

& José Luis Goñi Sein jauna

& José Iruretagoyena Aldaz jauna

4.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN EGOITZA.

Nafarroako Kontseilua sortu zuen foru legearen 1.3 artikuluaaren arabera, erakundeak Iruñean du egoitza.

2003ko ekainaren 2az geroztik, egoitza Iruñeko Emilio Arrieta kaleko 8an du, seigarren solairuan.

5.

NAFARROAKO KONTSEILUKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEAK.

Nafarroako Kontseiluak, sorrera eman zion foru legeak aitortzen dion autonomia organikoa eta funtzionala baliatuz, 2023ko apirilaren 24an egin-dako bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen bere plantilla organikoa, lanpostu hauek osatua: legelari bat (funtzionarioa) eta Kontseiluko buruaren idazkaria (behin-behinekoa).

2023an, Kontseiluko legelaria José Ignacio Labé Valenzuela jauna da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioa, eta Kontseiluko buruaren idazkaria, berriz, Mónica Muñoz Fernández andrea.

6.

AURREKONTUA.

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako C00000 programan jasota dagoena, 472.715,00 eurokoa izan da 2023ko ekitaldian, honela banatuta:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	211.249,00 euro.
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	233.466,00 euro.
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	28.000,00 euro.
Guztira		472.715,00 euro

2023ko aurrekontu ekitaldia amaitu eta itxi ondoren, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu gauzatua honako hau da:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	161.914,08 euro
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	129.053,20 euro
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	612,32 euro
Guztira		291.579,60 euro

2. kapituluko aurrekontua gutxiago gauzatu izanaren arrazoia da, hein handi batean, Nafarroako Kontseiluak ez diela azterlan eta lan teknikorik eskatu kanpoko adituei, eta 2010ean hasitako aurrezpen politikarekin jarraitu duela.

2024ko ekitaldirako, Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua, Kontseiluak berak proposaturik, Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuko C00000 programan sartu zen, honela banatuta:

1. kapitulua	(Langileen gastuak)	223.094,00 euro.
2. kapitulua	(Ondasun arruntak eta zerbitzuak)	233.466,00 euro.
6. kapitulua	(Inbertsio errealak)	28.000,00 euro.
Guztira		484.560,00 euro

7. WEBGUNEAK.

Nafarroako Kontseiluak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garrantziaz jabeturik, bere webgunea sortu zuen 2001ean.

2006an, www.consejodenavarra.es webgunearen orriak diseinatu eta berrikusi ziren 'Web Content Accessibility Guidelines 1.0' (Web 1.0 edukiaren eskuragarritasun jarraibideak) izeneko agirian zehaztutako jarraibideen arabera; jarraibideak W3C-ko WAI lantaldeak eginak dira, eta bat datoz Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean ezarritakoarekin.

Web diseinu eskuragarriari esker, desgaitasun fisikoak, zentzumenezkoak edo kognitiboak direla-eta saretik bazterturik egon ohi diren pertsonek, edo lan ingurunearekin edo oztopo teknologikoekin lotutako mugak dituztenek, webgune bateko edukiak eta zerbitzuak eskura izan ditzakete.

Webgunearen programazio eskuragarriak zerbitzuak eta edukiak plataforma askotatik eskura ditzaketen erabiltzaileen kopurua handitzen du, gunearen ikusgarritasuna hobetzen du bilatzaileetan, eta faktore horiek trafikoa areagotzea dakarte.

Nafarroako Kontseiluaren webgunera bide honetatik ere sartzen ahal da: 'www.cfnavarra.es/consejodenavarra'.

8.

JARDUN INSTITUZIONALA.

Kontseiluko buruak Nafarroako Kontseilua ordezkatu zuen ekitaldi hauetan:

- Bideokonferentzia Estatu Kontseiluko buruarekin eta Aholku Kontseiluekin, urtarrilaren 16an
- Nafarroako Foruzaingoaren jaiaren ospakizuna, otsailaren 25ean.
- Terrorismoaren Biktimen Europako Egunaren omenezko ekitaldia, martxoaren 11n,
- Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzearen domina emateko ekitaldia, martxoaren 27an, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan.
- Martxoaren 29an Nafarroako Unibertsitatean San Raimundo Peñafort bestaren kariatara egindako ekitaldi akademikoa.
- Abuztuaren 17an, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren kargua hartzeko ekitaldian.

- Bilera Iruñeko alkatearekin, abuztuaren 30ean
- Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren kargua hartzeko ekitaldia, abuztuaren 30ean, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 2023-2024 ikasturteari hasiera emateko irailaren 12an ospatutako ekitaldian.
- Bilera Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariarekin eta Nafarroako Gobernuko lehendakariordearekin, irailaren 15ean.
- Nafarroako Unibertsitatean 2019-2020 ikasturteari hasiera emateko irailaren 15ean ospatutako ekitaldian.
- Urte judizialari hasiera emateko ekitaldia, irailaren 22an.
- Guardia Zibilaren zaindari Pilareko Ama Birjinaren eguneko ekitaldiak, urriaren 12an.
- Kantsulta funtzioari buruzko XXII. Jardunaldi Nazionalak, urriaren 25, 26 eta 27an, Logroñon.
- Nafarroako Urrezko Domina emateko ekitaldia, abenduaren 3an.
- Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren kargua hartzeko ekitaldia, abenduaren 11n, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan.
- Iruñeko Abokatuen Elkargoak bere zaindariaren eguna ospatzeko abenduaren 18an eta 19an egindako ekitaldietan.





KONTSULTA LANA

1.

IRIZPEN ESKAEREN KOPURUA.

2023an, hogeita hamazazpi irizpen eskaera sartu ziren Nafarroako Kontseiluan.



2.

DOKUMENTAZIOA.

Irizpen eskaera horietatik zazpitan espedienteak osatu gabe zegoenez, behar zen dokumentazio gehigarriarekin osatzeko eskatu zen Kontseilutik, eta irizpena emateko epea eten egin zen.



3.

ESPEDIENTEA ATZERA ITZULTZEA.

Espediente bat itzuli zaio kontsulta egin duen agintaritzari, ez zituelako betetzen Nafarroako Kontseiluaren Antolaketaren eta Funtzionamenduarien Erregelamenduan emandako baldintzak.



4.

EMANDAKO IRIZPENAK.

Nafarroako Kontseiluak hogeita hemeretzi irizpen eman zituen 2023an. Horietatik, bederatzi 2022an egindako eskaerei dagozkie, eta gainerako hogeita hamar irizpenak 2023an egindako kontsultei.

Hortaz, hogeita hamazazpi eskaera onartu ziren, eta horietatik hogeita hamar kasutan eman zen irizpena. 2023ko abenduaren 31n, zazpi espediente zeuden irizpen zain; horietatik hiru 2023ko abenduaren 13tik aitzina sartu ziren, eta beste bi eskatutako dokumentazio osagarria aurkezteko zain zeuden.


Emandako irizpenak hauek izan dira, izaeraren arabera sailkatuta:

Fakultatiboak	0
Nahitaezkoak	39

Emandako irizpenak irizpide hauen arabera sailkatu daitezke:

a) Organo eskatzailearen arabera:

Bidaltzailea	Kopurua
Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria	39
Nafarroako Parlamentuko lehendakaria	0




- Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria
- Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak igorritako eskaeretatik bat toki entitateek egindako kontsultei dagokie, Nafarroako Kontseiluari buruzko foru legearen 15 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.


b) Jatorriaren arabera:

Jatorria	Kopurua
Nafarroako Gobernua	38
Nafarroako Parlamentua	0
Toki erakundeak	1
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	0




- Nafarroako Gobernua
- Nafarroako Parlamentua
- Toki erakundeak
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Gobernua, departamentuz departamentu:	Kopurua
Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua (2023)	1
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	11
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua	0
Lurralde Kohesiorako Departamentua	2
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	2
Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua	0
Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua	0
Hezkuntza Departamentua	6
Eskubide Sozialetako Departamentua	1
Osasun Departamentua	8
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua	0
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	1
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	6
Kultura eta Kirol Departamentua	0
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua (2023)	0
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua (2023)	0
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua (2023)	0
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua (2023)	0
GUZTIRA	38



c) Gaien arabera:


Gaiak	Kopurua
Konstituzio kontrakotasuneko errekurtsioak	0
Estatuko oinarritzako legedia garatzeko edo Europako komunitateko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak egitea.	
<i>Irizpena: 13</i>	1
Legegintzako foru dekretuen proiektuak.	0
Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, eta haien aldaketak.	
<i>Irizpenak: 2, 3, 5, 7, 8, 9, 14, 15, 16, 17, 19, 21, 23, 26, 27, 29, 30, 31, 32, 34, 35</i>	21
Berrikusteko administrazio errekurtsioak	
<i>Irizpenak: 12</i>	1
300.000,00 eurotik gorako kalte-ordainen eskaerak, kalte eta gale- rengatik	
<i>Irizpenak: 10, 11, 18, 22, 25, 28, 36, 37, 38, 39</i>	10
Udal-mugarteen aldaketari buruzko espedienteak	
<i>Irizpena: 29</i>	1
Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena.	
<i>Irizpenak: 4, 24, 33</i>	3
Administrazio hitzarmen eta kontratuen interpretazioa, baliogabe- tasuna eta suntsiarazpena, kontratistak aurka egiten duenean.	
<i>Irizpenak: 1, 6</i>	2
Bestelako gaiak	0
GUZTIRA	39



Konparazio azterlana, gaien arabera: 2015-2023 urteak

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2015-2023
Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren Erreforma	0	0	0		0	0	0		0	0
Estatuko oinarrizko legedia garatzeko edo Europako komunitateko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak			1	1	2	1	1	2	1	9
Legegintzako foru dekretuen proiektuak &	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1
Konstituzio kontraktasuneko errekturtoak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Itun Ekonomikoaren Erregelam. & &	0	0	0	0	0	0	0		0	0
Lankidetzat hitzarmenak eta akordioak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Legeak betearazteko erregelamenduak	13	10	15	12	15	5	15	14	21	120
Transakzio judizialak edo judizioz kanpokoak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Berrikusteko administrazio errekturtoak	2	10	11	4	3	0	3	1	1	35
Administrazioaren ondare erantzukizuna	11	22	15	7	8	10	8	13	10	104
Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena	8	8	5	12	12	9	10	5	3	72
& Udal mugarteak aldatzeko espedienteak	0	0	0	0	3	0	0	0	0	4
Administrazio kontratuak	0	2	1	1	6	3	1	1	2	17
Bestelako gaiak	2	4	4	3	5	2	3	6	0	29
	36	56	53	40	54	30	41	42	39	391

Konparazio azterlana, gaien arabera: 2015-2023 urteak



5.

PRESAKO IZAERAZ EMANDAKO IRIZPENAK.

Presako izaeraz hamaika irizpen eman dira.



6.

IRIZPENAREN XEDE IZANDAKO GAIEI BURUZKO ERABAKIAK.

Nafarroako Kontseiluak, 2023ko abenduaren 31 arte, kontsulta eta irizpenaren xede izandako espedienteei buruzko 24 xedapen eta ebazpen administratiboren berri izan du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelako edo Kontseiluari jakinarazi zitzaizkiolako, Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 36. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Nafarroako Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendurako Erregelamenduaren 4.4 artikuluan ezarrita dagoenez, Nafarroako Kontseiluaren txostena jaso duten gaiei buruzko xedapen eta ebazpen administratiboetan adieraziko da horiek Kontseiluak emandako irizpenarekin bat datozen edo ez.

Urte honetan ikusi denez, erregelamenduzko xedapenetan ohikoa bihurtu da “Nafarroako Kontseiluarekin bat” dioen formula erabiltzea.

Esan beharra dago hartutako xedapen eta ebazpen administratibo gehienetan jaso egin direla Nafarroako Kontseiluak bere irizpenetan egindako oharrek.



7.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN BILKURAK.

Nafarroako Kontseiluak 18 bilkura egin ditu 2023an.



8.

IRIZPENEN ZENBAKIZKO AURKIBIDEA.

Irizpena: 1/2023, urtarrilaren 12koa

Nafarroako Ubidearen 1. faseak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntza eta ustiapen kontratuaren gaineko interpretazioari buruzko Foru Aginduaren proiektua.

Irizpena: 2/2023, urtarrilaren 12koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Elkartearen Erregistroa eta bere eskumeneko prozedurak arautzen dituenak.

Irizpena: 3/2023, urtarrilaren 12koa

Foru Dekretuaren proiektua, Foruzaingoak jantziak erosteari dagokion kalte-ordaina jasotzeko baldintzak arautzen dituenak.

Irizpena: 4/2023, urtarrilaren 12koa

Agintarientzako gidarien izendapenari eta haien funtzioen esleipenari buruz Barneko zuzendari nagusiak emandako ebazpenen ofiziozko berrikuspena.

Irizpena: 5/2023, urtarrilaren 30ekoa

Foru Dekretuaren Proiektua, zeinak arautuko baititu nekazaritzako ekoizpen ekologikoa eta haren azalpena nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuetan.

Irizpena: 6/2023, urtarrilaren 30ekoa

Proiektua idazteko eta obren zuzendaritza fakultatiboa egiteko administrazio kontratua deuseztatzea.

Irizpena: 7/2023, otsailaren 7koa

Foru Dekretu proiektua, zeinaren bidez Babes Bereziko Basa Florako Espezieen Nafarroako Zerrenda ezartzen baita eta Nafarroako Florako Espezie Mehatxatuen Katalogo berria ezartzen baita.

Irizpena: 8/2023, otsailaren 7koa

Foru Dekretuaren proiektua, zeinaren bidez arautzen baita farmazia zerbitzuen eta medikamentu gordailuen farmazia arreta Nafarroako Foru Komunitateko zentro soziosanitarioetan.

Irizpena: 9/2023, otsailaren 7koa

Foru Dekretuaren Proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Gazte Sariak arautzen dituena.

Irizpena: 10/2023, otsailaren 21ekoa

Ondare erantzukizuna zirkulazio istripu baten ondoriozko kalteengatik.

Irizpena: 11/2023, otsailaren 21ekoa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna osasun laguntzagatik.

Irizpena: 12/2023, otsailaren 21ekoa

Berrikusteko errekurtsio berezia Filosofia espezialitateko (gaztelaniaz) oposizio faseko kalifikazioen aurka.

Irizpena: 13/2023, martxoaren 8koa

Arrantza kudeaketari buruzko foru legearen aurreproiektua.

Irizpena: 14/2023, martxoaren 8koa

Foru Dekretuaren proiektua, zeinak arautuko baititu Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua.

Irizpena: 15/2023, martxoaren 20koa

Foru dekretuaren proiektua, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroan lanbide heziketa eskaintzen duten zentro publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztatgarriko ekintzak aurrera eramateko.

Irizpena: 16/2023, apirilaren 3koa

Gizarte zerbitzuei buruzko 92/2020 eta 69/2008 foru dekretuak aldatzen dituen Foru Dekretuaren proiektua.

Irizpena: 17/2023, apirilaren 3koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornikuntza arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzen duena.

Irizpena: 18/2023, apirilaren 17koa

Ondare erantzukizunaren erreklamazioa.

Irizpena: 19/2023, apirilaren 17koa

Foru Dekretuaren proiektua; honen bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarrizko alderdiak.

Irizpena: 20/2023, apirilaren 24koa

Ebazpen proposamena; honen bidez ebatzi eta baztertzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2021erako publizitate instituzionalaren esparru akordioaren 7. lotea.

Irizpena: 21/2023, maiatzaren 15ekoa

Legegintzako Foru Dekretuaren proiektua; honen bidez onesten da fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga pizgarrien testu bategina.

Irizpena: 22/2023, maiatzaren 15ekoa

Iruñeko Udalaren ondare erantzukizuna espazio publikoan gertatutako erorketa batengatik.

Irizpena: 23/2023, ekainaren 6koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean Aisialdian Hezteko Eskolak eta horien irakaskuntzak aitortzea arautzen duena.

Irizpena: 24/2023, ekainaren 6koa

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren abenduaren 20ko 3315/2021 Ebazpenaren ofiziozko berrikuspena eta deuseztasunaren deklarazioa. Haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioak izendatu ziren zeladore lanpostuan aritzeko eta lanpostua esleitu zitzaien.

Irizpena: 25/2023, ekainaren 6koa

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Agentziaren jarduketagatikko ondare erantzukizuna.

Irizpena: 26/2023, ekainaren 6koa

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektua.

Irizpena: 27/2023, ekainaren 6koa

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikertzaile kontratatuen araubidea ezarri zuen apirilaren 20ko 36/2009 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektua.

Irizpena: 28/2023, uztailaren 21ekoa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna osasun laguntzagatik.

Irizpena: 29/2023, uztailaren 21ekoa

Foru Dekretuaren proiektua, Galarko eta Iruñeko udal mugarteak Donapea eta Gariton eremuetan aldatzeko espedientea ebazten duena.

Irizpena: 30/2023, uztailaren 21ekoa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Hondakin Planaren Jarraipen Batzordearen antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa.

Irizpena: 31/2023, uztailaren 31koa

Foru Dekretuaren proiektua; honen bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomikoa.

Irizpena: 32/2023, irailaren 4koa

Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren proiektua.

Irizpena: 33/2023, irailaren 4koa

Oposizio-lehiaketaren azken emaitzari buruzko gora jotzeko errekurtsoaren baiespen partziala onetsiz Osasuneko kontseilariak apirilaren 26an emandako 139E/2023 Foru Aginduaren ofiziozko berrikuspena.

Irizpena: 34/2023, urriaren 9koa

Foru Dekretuaren proiektua; honen bidez aldatzen dira: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua, abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia; 8/2010 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen; 50/2006 Foru Dekretua, uztailaren 17koa, baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duena Nafarroako Foru

Ogasunaren esparruan, eta 177/2001 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, Nafarroako Foru Komunitateko Dirubilketa Erregelamendua onesten duena.

Irizpena: 35/2023, azaroaren 20koa

Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako boluntarioaren aparteko izendapena eta aitorpena arautzen dituen.

Irizpena: 36/2023, azaroaren 20koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna osasun laguntza batengatik.

Irizpena: 37/2023, abenduaren 22koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna, behi azienaren etxalde bat eta biometanizazio planta jartzeko ingurumen baimena ukatzeak eragindako kalteengatik.

Irizpena: 38/2023, abenduaren 22koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna osasun laguntzaren atzerapenak eragindako ustezko kalteengatik.

Irizpena: 39/2023, abenduaren 22koa

Nafarroako Foru Administrazioaren ondare erantzukizuna osasun laguntzagatik.

